



Lizarrako Gaiteroak

Lizarrako Gaiteroek berrogei urte baino gehiagoko ibilbide luzea dute gaitero autonomo gisa, eta disko eta argitalpen izateaz gain, saio ugari eman dituzte penintsulan, Portugalen, Frantzia, Amerikan edo Japonian. Halaber, 1993an banda sortu zenetik bertan sartuta daude, beste haizezko soinu-tresna batzuk jotzen eta, obrak hala eskatzen duenean, gaita jotzeaz arduratzen dira.



Lizarrako musika banda (ACUME. Asociación Cultural Unión Musical Estellesa)

Banda, musika talde gisa, Lizarran 1843an agertu zen, dantza publikoak, funtzio erlijiosoak edo hiriko bestelako funtzioak laguntzen. Gaur egungo musika banda 1992an hasi zen 2017 arte zuzendari aritu zen Josetxo Sánchez Salsamendi buru zuela. Urte horretan Isaac Irimia Roa estellarrak hartu zuen lekukoa, ordura arte taldeko kide zena, perkusionista gisa lehenik eta tuba gisa gero.

Bandan parte hartzen duten gaiteroei esker, bere artxihoan gaita erreperitorio zabala du, gaita eta bandarako pieza originalak, euskal konpositore ezberdinei egindako enkarguak eta jasotako erreperitoria elikatzen duten moldaketa eta transkripzioak barne hartzen dituena.

St. Pietro Quartet Quintet

St. Pietro Quartet Quintet, 2020an bi gaiterok, tronboi jotzaile batek, bonbardino batek, tuba batek eta perkusio jotzaile batek osatutako taldea da. Berriz ere, Lizarrako musika-ondareko soinu-tresna adierazgarriena delako aukeratu da gaita. Taldea Lizarrako Bandako zenbait kidek Covid delakoak eragindako larrialdian elkartzen jarraitzeko eta musika egiteko zuten kezkatatik sortu zen.. Garai hartako larrialdi egoerak ez zuen talde handien entseguetarako aukerarik ematen.

Talde honen erreperitorioan musika modernoaren, poparen eta Lizarrako eskualdeko musika tradizionalaren moldaketak aurki ditzakegu.

Musika-proposamena

Proiektuak Lizarrako folklorea eta Euskal Herriko musikagileen musika batzen dituen nahasketa aurkezten du, gaita garaiko aukeretara egokitutako instrumentu bakarlari gisa garatzeaz gain, gaitarien eta beste talde batzuen (laukotea, boskotea eta banda) arteko fusio ezberdinak ere erakutsiz.

Lehenik, gaitarako hiru obra joko dira: Bonifacio Iraizoz organista nafarraren *Danza y zortziko*, Blas de Laserna nafarraren *Tonadilla general* bat eta Julian Romanoren *Sonata* bat. Jarraian, St. Pietro Quartet-Quintet taldeak dantza euskal-nafarrak eta Lizarran izan ziren bi peñari, La Bota eta La Lizarrakoa, eskainitako murgak joko ditu. Azkenik, Lizarrako Bandak euskal-nafar jatorriko dantzak joko ditu, formatu laburrean: *Vals Elgacena* eta *Jota Astería*, besteak beste, eta bi diana eta bi dantza medley. Lehena arabar jatorriko dantzen suite bat da (*Hego Arabako dantzak*) eta bigarrena Lizarra aldean jasotako dantzen potpurria (*Potpurri de Aires Estelleses*).

Ikus-entzunezko erreferentziak

<https://youtu.be/q4fPUVq00jE?si=bsLnSWiFLNBVGXqx>

Estreno de *Lizarrako Irudiak. (3 - Jurramendiren Hegaletan*, de Koldo Pastor (obra de encargo de los Gaiteros de Estella/Lizarrako Gaiteroak)

Gaiteros de Estella/Lizarrako Gaiteroak y Banda. Ertzaintzaren Musika Banda-Ertzaintzaren Eresbatza. Estella/Lizarra, 2009ko ekainak 20.

https://youtu.be/zZT-XQvgHqA?si=7-fXi_S5kuu1qdWR

Vals con variaciones. Arreglo de Julián Romano (1831-1899).

Gaiteros de Estella/Lizarrako Gaiteroak eta Debako Musika Banda.

Deba, 2005eko martxoak 13.

<https://youtu.be/AotyaIkY8Aw?si=yezN5jaSAi8mq9z2>

Nobleza Obliga, Enrique Broca (1843-1900).

Gaiteros de Estella/Lizarrako Gaiteroak eta Debako Musika Banda.

Deba, 2015eko maiatzak 16.

<https://youtu.be/pAiM4vB6xg0?si=EvMbF8afa4VOs64m>

Jota a San Fermín, Joaquín Madurga.

Banda de Música de Estella/Lizarra.

Estella/Lizarra, 2023ko abuztuak 7.